




EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO



## ADIERAZPEN INSTITUZIONALERAKO PROPOSAMENA

### LESBIANA, GAI ETA TRANSEXUALEN ASKATASUNAREN ALDEKO NAZIOARTEKO EGUNA


1969ko ekainaren 28an hasi zen munduan gay, lesbiana eta transexualen eskubideen aldeko mugimendu modernoak. Egun hori gertakari historikoa bilakatu da giza eskubideen aldeko borrokan, eta ordutik hogeita hemezortzi urte pasa direnean, Eusko Legebiltzarra ere bildu nahi da egun horren ospakizunera, adieraziz irmoki gaitzesten duela orientazio eta identitate genero-sexualeko arrazoiengatik egiten den diskriminazio-mota oro, eta pertsona guztien berdintasuna defenditzen duela.

Gizarte guztiari dagokio, eta baita gizartearen ordezkariari ere, arlo honetan beharrezko aldaketa sozialak sustatzeko azken erantzukizuna, helburua izan behar baita gainerako herritarrek dituzten berdintasun, askatasun eta errespetuzko baldintza beretan bizi ahal izatea kolektibo horiek ere. Legebiltzarrak gay, lesbiana eta transexualen eskakizunak onartzea eta bere egitea laguntza handia da dibertsitate sexualari dagokionez berdintasuna lortzeko.

Bestelako jarrera bat hartuz gero, faboratu eta indartu egingo lirateke pertsona hauen kontrako posizio sozialak, eta beste alde batetik, botere publikoen eta kargu horietan daudenen utzikeria erakutsiko luke, zeren aginte publikoek pertsonen berdintasuna bermatu beharra baitaude, pertsonen izaera sexualari begiratu gabe. Gure gizarteak izan duen aurrerapen, modernizazio eta demokratizazioaren ondorioz, eta orobat gay, lesbiana eta transexualen mugimenduak eraman duen lan erreibindikatiboari esker, gero eta argiago dago injustuzko eta arbuiozko egoera horiek ezin direla mantendu gizon eta emakume talde baten kaltean.

EB 5

ARLOR



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

Egia da aurrerapenak egin direla legeetan, baina ez behar adinakoak. Herritarren artean kontzientzia solidarioa sortu behar da, erabateko jarrera-aldaketa sustatuko duena lesbiana, gay eta transexualen eta beraien errealitatearen aurrean, eta kontzientzia hori sortzeko lanean bereziki eta lehentasunez parte hartu behar dute ordezkari politikoeak. Aldeztu egin behar dituzte transexual, lesbiana eta gayen elkarten erreklamazioak, berdinak izateko eta sentitzeko oinarrizko eskubidea defendituz, baina gai izan behar dira, orobat, naturaltasun osoz eta zorrotzasunez eta zintzotasunez proposamenak egiteko, beren sentsibilitatetik sortutako eta beren erantzukizunak bultzatutako proposamenak. Eta lan hori oportunismo politikorik gabe eta errentagarritasun-bilaketarik gabe egin behar dute. Eta onartu behar dituzte, autokritika eginez, iraganeko gabeziak eta ahazturak, eta onartu behar dute, orobat, gaur eguneko egoeran pertsona hauekiko duten erantzukizuna.

Egitate homosexuala eta transexuala, dudarik gabe, eskubide eta askatasun publikoen defentsan daukagun eginkizun politikoaren barruan sartu behar da, eta egitate horri dagokionez politika aktibo antidiskriminatorioak abiarazi behar dira, gure ordenamendu juridikoak aldarrikatzen duen berdintasuna benetakoa eta efektiboa izan dadin urratsak egiteko.

Gay, lesbiana eta transexualen eskubideen aldeko mugimenduak sortu ziren egunaren urteurren honetan, Eusko Legebiltzarrak adierazi nahi du konpromisoa hartzen duela herritar guztien berdintasunaren alde lan egiteko, alde batera utzirik zein den pertsonen orientazio eta identitate sexuala. Bestalde, eskerrak eman nahi dizkie homosexualen eta transexualen eskubideen defentsan ari diren erakunde guztiei, uste baitu egiten duten lana oso garrantzitsua dela eta lan hori funtsezkoa dela gizarte justuago eta igualitarioago bat lortu ahal izateko. Oinarrizko eskubideen kontua da.

EA



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO


## PROPUESTA DE DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DÍA INTERNACIONAL

### DE LA LIBERACIÓN LESBIANA, GAY Y TRANSEXUAL

GCN - BTT  
"El 28 de junio de 1969 marca el inicio del movimiento moderno por los derechos de gays, lesbianas y transexuales en el mundo. Treinta y ocho años después de este hecho histórico en la lucha por los derechos humanos, el Parlamento Vasco quiere sumarse a esta celebración manifestando su firme rechazo a cualquier tipo de discriminación por motivos de orientación e identidad género-sexual, así como su defensa de la igualdad de todas las personas.

Está en manos de toda la sociedad y también de los representantes de la ciudadanía la responsabilidad última de promover los cambios sociales precisos para que estos colectivos puedan vivir en las mismas condiciones de igualdad, libertad y respeto que el resto de ciudadanos y ciudadanas. La asunción por nuestra parte de las reivindicaciones de gays, lesbianas y transexuales coadyuva a la igualdad con respeto a la diversidad sexual.

Otra actitud favorece y realimenta las posiciones sociales en contra de estas personas, por miedo a lo diferente, e implica una dejación del deber que tienen los poderes públicos y quienes los ostentan de garantizar la igualdad de las personas independientemente de su condición sexual. Como consecuencia del progreso, la modernización y democratización de nuestra sociedad, así como por el esfuerzo de concienciación y el trabajo reivindicativo llevado a cabo por el movimiento gay, lésbico y transexual, es cada vez más evidente que estas situaciones de injusticia y rechazo no pueden mantenerse en perjuicio de un grupo de hombres y mujeres libres.





EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

Es verdad que se han producido avances legislativos, pero no son suficientes. En la creación de una conciencia ciudadana solidaria, que promueva un cambio radical de actitud hacia las personas lesbianas, gays y transexuales y su realidad, deben participar las y los representantes políticos de forma especial y prioritaria. Apoyando las reclamaciones de las asociaciones de transexuales, lesbianas y gays mediante la defensa del derecho fundamental a ser y sentirse iguales, pero también siendo capaces de elaborar con absoluta naturalidad propuestas rigurosas y sinceras que nazcan de su sensibilidad y de su sentido de la responsabilidad. Y ello, sin oportunismo político alguno ni buscando rentabilidades, y asumiendo como autocrítica las carencias y olvidos del pasado y la responsabilidad que con estas personas se tiene en la situación actual.

El hecho homosexual y transexual debe formar parte de nuestro quehacer político en defensa de los derechos y libertades públicas, al tiempo que sobre el se construyan políticas activas antidiscriminatorias que avancen de manera sustancial en el camino de la igualdad real y efectiva que proclama nuestro ordenamiento jurídico.

En este aniversario del nacimiento de los movimientos en defensa de los derechos de gays, lesbianas y transexuales, el Parlamento Vasco manifiesta su compromiso de trabajar por la igualdad de todos los ciudadanos y ciudadanas con independencia de la orientación e identidad sexual de la persona y trasladar su agradecimiento a todas las organizaciones de defensa de los derechos de las personas homosexuales y transexuales, que realizan una importante labor, con la convicción de que su trabajo y esfuerzo es fundamental en la construcción de una sociedad más justa e igualitaria. Es una cuestión de derechos fundamentales".

EB-5

39/10

G. GOENAGA VASCO-BTS